



## Kike Amonarriz

◆ UMOREGILEA ETA SOZIOLINGUISTA

# Calvet Barometroa: euskara da munduko 51. hizkuntza

KALERATU berri dira Calvet Barometroaren 2012ko datuak. Munduko hizkuntzen bizi-indarra edo “pisua” neurtzen dituen barometro honetan, inoiz baino hizkuntza gehiago sailkatu ziren iaz.

Azken neurketa honetan, Alain Calvet eta Louis-Jean Calvet soziolinguistek *Ethnologue*ren arabera 500.000 hiztun baino gehiago dituzten munduko 563 hizkuntzak neurtu eta sailkatu dituzt. 2010ean 137 neurtu zituzten. Hitzun kopuruz gain, hizkuntza baten bizi-indarra edo “pisua” neurtzeko garrantzitsuak diren beste hamar faktore aintzat harturik, munduan “pisu” gehien duen hizkuntza ingelesa da, bigarrena gaztelania eta hirugarrena frantsesa. Sailkapen honetan mandarinerara 10. lekuan geratu da. Euskara, berriz, munduko 51. hizkuntza da.

Emaitza honetara iristeko aintzat hartu diren faktoreak honako hauek izan dira: hitzun kopurua, entropia (hiztunen proportzioa, bizi diren herrialdeetan), zenbaten lehen hizkuntza den, ofizialtasuna, hizkuntza horretatik itzulitako liburuak, hizkuntza horretara itzulitako liburuak, Literatura Nobel sariak, Wikipediako artikulua, Giza-garapenaren indizea (hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako batezbestekoa, NBERen datuen arabera), ugal-kortasun-tasa eta Interneteko barneratze-tasa.

Egileek diotenez, bestelako faktore batzuk ere aukera zitezkeen baina hizkuntza guz-

tiei edo gehienei buruzko datuak lor zitezkeen faktoreak lehenetsi dituzte. Bestalde, indize horiei guztiei 1eko balioa eman zaie, baina erabil-tzaileak indizeen garrantzia barematu dezake, batzuen handituz eta besteena murriz-tuz eta ponderazio berriak egin. Esate baterako, beste faktore guztiak 1eko balioarekin utzi baina hitzun kopuruari 2ko balioa ematen badiogu, euskara 71. lekura jaisten da. Edozein kasutan, bizi-indar handieneko 100 hizkuntzen artean kokatzen da sailkapen honen arabera.

Duela gutxi, ARGIAko blogean argitaratutako *Euskararen tamaina munduko hizkuntzen* artean artikulua sortu zuen jakin-mina eta izan zituen erreakzioak ikusita, pentsatzen dut, datu berri hauek ere baten baino gehiagoren harridura eta jakin-mina sortuko dutela.

Esan dezagun, bide batez Louis-Jean Calvet oso soziolinguista ezaguna dela. Bere lehen liburuetako bat *Linguistique et colonialisme. Petit traité de glottologie* (1974) izan zen. Liburu hau erreferentzia ezinbestekoa izan zen 1970eko eta 1980ko hamarkadetan euskararen eta beste hizkuntza zapalduen aldeko mugimenduan genbiltzanontzat (gaztelaniara itzulita ere aurki daiteke). Anekdota gisa aipatuko dut ZERUKO ARGIAN argitaratuen lehen artikuluetako bat liburu honen kritika izan zela. ■



## BERTSO BERRIAK

### Abra malkotan



L. MARKUERKAGA / XDZ

## Aingeru Basterretxea Bitorika



**Doinua:** Aizak hi mutil mainontzi.

Getxo, Muzkiz, Zierbana  
itsasoaren laztana.  
Arrigunaga ta Ereaga  
ezpain musu bana.  
Punta Luzeroko sama  
edonora eramana,  
itsasadarra irenstearren  
pausua emana.

Natura eszenario  
bizitasunen garraino.  
Bizitzan ura gure senari  
biziki darraio.  
Abra honen kalbario,  
negar malkoa dario  
eta Portuko agintzaritzai  
bost axola zaio.

Ez al dago aukerarik?  
Dragatzea ez besterik.  
Atzera buelta ez pentsa gero  
izango dugunik.  
Besotik elkar harturik,  
arnasa hartu, ez atzerik.  
Entzun dezaten garrasi latza:  
Geure Abra bizirik! ■

